

# getxoBerri

## / Nabarmentzekoak

- > Kaishop! kanpainak euskara eta herriko merkataritza batuko ditu berriro (2. or.)
- > “La boda de otros”, “Getxo Eszena Irekia” deialdian aukeratutako antzerki muntaia (3. or.)
- > Begoña Beristain, Six Majorsak osatu duen lehen getxotarra (4. or.)

## \*Omenaldia Zine-Klubeko Manu Gómez eta Oskar Fernandezi (4. or.)



**Kontzertua.** Hilak 9 (ostirala), 18:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Hango Tango (Musikeneko Interpretazioa Masterraren ikasleak). Sarrera dohainik.

**Getxo Eszena Klean. Antzerkia.** Hilak 10 (larunbata), 20:30ean, Areetako Geltokia plazan, “Plaza” (ele bitan) La Pez taldearekin. Sarrera doan.

**A-  
GENDA**

## “Rec”, Getxophoto Nazioarteko Irudi Jaialdiaren gaia

Maiatzaren 29tik ekainaren 22ra Getxophoto Nazioarteko Irudi Jaialdiaren beste edizio bat ospatuko da gure udalerrian. Oraingoan, aukeratutako gaia *Rec* izango da, eta gai horrekin itxiko da Maria Ptqkek komisariatutako trilogia, aurretik *Pausa* (2023) eta *Play* (2024) gaiak proposatu zituen. Aurten ere, Algortako erdiguneak, Ereaga hondartzako pasealekuak eta Romo eta Areetako inguruak hartuko dituzte jaialdiaren barruan programatutako erakusketak eta jarduerak.

### Gaia

*Rec* botoia behin eta berriz eta modu konpulsiboan bilatzen dugu gure gailuetan, edozein eduki mota erregistratzeko. Gai hori, jaialdi honetan beti bezala, adiera zabal batetik landuko da, eta hainbat gai ere jorratuko dira, hala nola irudien gainproduktzioa, teknologien etengabeko bilakara, artxiboa edo memoria.

Maria Ptqk komisarioaren hitzetan, “edizio honetan geure buruari galdetzen diogu nola berrasmatzen diren irudiaren arteak agertoki berri honetan: zein den artxiboak metatzearen eta kontakizun bat egitearen



arteko aldea, zein den irudiaren – eta ikus-erregistroaren bidez eraikitako memoriaren – etorkizuna muturreko REC mundu batean, materiagabea, erraz manipulatzekoa eta itxuraz infinitua”.

### Programazioa

Suitza, Japonia, Ghana, Italia, Belgika, Zeelanda Berria, Taiwan, Argentina, Estatu Batuak

edo Turkiatik etorritako artistek beren lanak erakutsiko dituzte erakusketa eta instalazioetan (gehienak aire zabalean). Beste eszenatoki batzuk Algortako merkaturia, Algortako kasinoa edo Punta Begoñako galeriak izango dira.

Erakusketa fisikoez gain, jaialdiak programa bat proposatzen du,

bereziki digitala eta online, zinema, musika, webcamak edo app bat barne. Halaber, parte hartze-ko programa zabala diseinatu da, besteak beste, solasaldiak, bisita gidatuak, aurkezpenak, esku-hartzeak, proiektzioak eta gaueko ibilaldiak.

Informazio gehiago jaso eta izena emateko: [www.getxophoto.com](http://www.getxophoto.com)

## Itzalaldiaren orduak gorabehera aipagarririk gabe eta lasaitasunez igaro ziren Getxoko kaleetan

Getxo asteleheneko, apirilak 28ko arratsaldean bertan hasi zen normaltasuna berreskuratzen, 12:30ean penintsula osoan eragina izan zuen itzalaldiaren ondoren. Argindarra pixkanaka hasi zen heltzen 15:00etatik aurrera Areta inguruan, Algorta beheko aldetik eta Neguritik jarraituz, eta 18:00etatik aurrera Algortako gunen altu batzuetatik. “Hasiera-hasieratik herritarren eta Egoitzako egoiliarren segurtasuna

bermatzea izan zen lehentasuna, eta horretarako beharrezko neurri guztiak hartu genituen. Eskerrak eman nahi dizkiegu aparteko egoera honetan bere prestutasuna eta laguntza agertu zituzten herritarrei, horien artean udal egoitzara hurbildu zirenei”, adierazi zuen Amaia Aguirre alkateak. Horretarako, Krisi Mahaia jarri zen martxan eta Babes Zibileko Larrialdien Planaren bigarren fasea ezarri zuten. Fase horretan eskura zeuden baliabide

guztiak abian ipini zituzten, sortutako ezohiko egoeraren balizko beharrei aurre egin ahal izate aldera. Ildo horretan, itzalaldiak iraun zuen bitartean, Udaltzaingoak herritarren segurtasunaren alde lan egin zuen, lasaitasuna ez-augarri nagusi izan zen orduotan.

Egindako jarduketan artean, agentek prebentziozko zaintza-lanak egin zituzten eta igogailu pribatuetan bi pertsona erreskatatzen

lagundu zuten. Suhiltzaileak ere Aiboako igogailuan harrapatuta geratu zen pertsona bat askatzen joan ziren. Trafikoari dagokionez, herrian zehar ez zen aparteko arazorik izan. Korredorean, Bilborako irteeran, lehengo unetan pilaketa handiak izan ziren, ondoren konpondu zirenak.

Udaleko zerbitzu teknikoek igogailu publikoen zerbitzua berrezarri zuten astearte goizean.



## MAIATZAK 2 OSTIRALA

**Antzerkia. Getxo Eszena Irekia deialdia.** 20:00etan, Muxikebarrin, "La boda de otros" (gaztelaniaz). 15€.

**Zine kluba.** 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Fermin Muguruzaren "Black is beltza II" (JBA). 16 urtetik aurrera. 3,50€.

## MAIATZAK 3 LARUNBATA

**Erakusketa.** Algortako azokan, Zirri Marra arte taileurrean egindako lanak.

**Getxo Eszena Kalean. Areetako Geltokia plazan.** 18:30ean, "Bira Kolore" (antzerkia) Zurrunka konpainiarekin. 19:30ean, "H" (zirkua) La Córcoles-ekin. Sarrera doan.

**Ikuskizun musikala.** 20:00etan, Muxikebarrin, "Hegoak" (euskaraz). 10€.

**Kontzertua. "Organo & Polyphonia" zikloa.** 20:00etan, San Nikolas Barikoa parrokan, Jatorki abesbatza, Miriam Cepeda (organoa), Josean Llorente (zuzendaria). Antolatzailea: Merklin Organoaren Lagunen Elkarte-AMOMA.

## MAIATZAK 4 IGANDEA

**Kontzertua. Kristalezko kioskoa.** 13:30ean, Muxikebarri aurrean, Bwatzabal Band. Sarrera doan.

**Zinemaxiki.** 12:00etan, Muxikebarrin, "Cazafantasmas: Imperio helado" (gaztelaniaz). Adin guztiak. 2,50€.

**Haur antzerkia.** 18:00etan, Muxikebarrin, "Moko" (euskaraz), Gorakada Teatroarekin. 6€.

## MAIATZAK 8 OSTEGUNA

**Ipuinaren ordua.** 18:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Cuentos de andar por casa" (gaztelaniaz) Beldebil taldearekin. 3 urtetik aurrera.

**Zinemabarri.** 19:00etan, Muxikebarrin, Florian Zellerren "El hijo" (JBA). 16 urtetik aurrera. 3,50€.

**Diru-bilketa solidarioa. 70 urte minbiziaren biziraupena babesten.** 09:00etatik 13:00etara, boluntarioek dohaintzak jasoko dituzte "Minbiziaren aurka Bizkaian" elkartearentzat.

## MAIATZAK 9 OSTIRALA

**Kontularien kluba.** 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), ipuinak entzun edo kontatu nahi dituzten helduen bilera.

**Zine kluba.** 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Alice Rohrwacherrren "La quimera" (JBA). 7 urtetik aurrera. 3,50€.

**Kontzertua.** 18:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Hango Tango" (Musikeneko Interpretazioa Masterraren ikasleak). Sarrera dohainik.

## MAIATZAK 10 LARUNBATA

**Antzerkia.** 20:00etan, Muxikebarrin, "Yerma" (euskaraz) La Dramática Erranterekin. 8€.

**Getxo Eszena Kalean. Antzerkia.** 20:30ean, Areetako Geltokia plazan, "Plaza" (elebitan) La Pez taldearekin. Sarrera doan.

**Kontzertua. MAJAZZ zikloa.** 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Iñar Sastre. Sarrera: 5€.

**Dantza plaza.** 19:00etan, Malakate parkean, erromeria udalerriko Dantza taldeekin: Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola. Antolatzaile: Itxas Argia Dantza Taldea.

**Umeen dantzaldia.** 17:15ean, Malakate parkean hasita, kalejira. 17:45ean, Andra Mariko kiroldegiko aparkalekuan, dantzaldia.

**Jardunaldi botanikoak.** 09:00etan, irteera Getxo eta inguruetatik landareak biltzeko. Arratsaldean jasotakoa sailkatuko da Aldai Patronatuan. [www.basoza-leak.com](http://www.basoza-leak.com)

## MAIATZAK 11 IGANDEA

**Jardunaldi botanikoak. Erakusketa.** 11:00etatik aurrera, landareen erakusketa San Nicolas plazan.

**Kontzertua. Kristalezko kioskoa.** 13:30ean, Muxikebarri aurrean, La Tokokera. Sarrera doan.

**Zinemaxiki.** 12:00etan, Muxikebarrin, "Looneyago lurrak eztanda egin zuen eguna" (euskaraz). Adin guztiak. 2,50€.

**Haur zinea.** 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "El lobo y el león" (gaztelaniaz). Adin guztiak. 2,50€.

**Dantza.** 18:00etan, Muxikebarrin, "Amama", Aukeran konpainiarekin. 6€.

# Kaishop! kanpainak euskara eta herriko merkataritza batuko ditu berriro

*Kaishop!, Erosi euskaraz Getxon kanpaina helduko da berriro, aurten maiatzaren 4tik 22ra, herritarrak dendetan euskara erabiltzera animatzeko, Alkarbide Bizkaiko Euskara Zerbitzuen Bilguneak eta hainbat Udalek (Getxo, Basauri, Erandio, Gernika-Lumo, Leioa eta Txorierriko Mankomunitatea) antolatuta, Foru Aldundiaren laguntzarekin. Euskarri digitalen eta fisikoen bidez herritarrei gogoratuko diete tokian tokiko merkataritzan euskarak duen garrantzia. "Gure dendetan lehen hitza euskaraz esatea hizkuntzaren erabilera handitzearen aldeko urrats garrantzitsutzat jotzen dugu. Gainera kalitatea eta tratu pertsonala eskaintzen dituzten 0 kilometroko produktuekin gure beharretara berehala egokitzen den zerbitzua eskuratzen dugu", azaldu du Zalaoa Campillo Euskara zinegotziak.*

Aurten ere, kanpaina udalerriko kaleetan zehar ibiliko da, Getxoren eta euskararen inguruko galderak herritarrei egiten. Inkesta betetzen dutenek karteratxo bat jasoko dute opari gisa eta Euskararen Laguna Saltokiek emandako produktu batzuen zozketan ere sartuko dira. Horrez gain, Bizkaiko parte hartzaile guztiekin batera, Eneko Atxaren


## Indarkeri eta kontsumoari buruzko erakusketa eta dokumentala Gurarin

Gurari Emakumeen Etxean Indarkeria kontsumitzen dugu? izenburuko erakusketa eta *Fabricando mujeres* dokumentalaren proiektioa izango dira, Setem GGKEaren eskutik, Foru Aldundiaren eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntzarekin.

Maiatzaren 25era arte bisitatu ahal izango den erakusketa ekoizpen-ereduaren eta kontsumo kapitalistaren artean dauden harremanak aztertu dituen ikerketak lortutako emaitzetan oinarritzen da, baita indarkeria matxisten artean hainbat esparrutan ere. Bestalde, astelehenean, maiatzak 5, dokumentala proiektatuko da 18:30etik aurrera, doako sarrerarekin. Lan horrek indarkeria matxisten eta kontsumo konbentzio-



Euskara + 0 km = kalitatea



batetxean bi pertsonentzako bazkari baten zozketan ere sartuko dira. Aurten nobedade gisa, Euskararen Laguna Saltokietan egongo diren karteletako QR kodearen bidez ere bete ahal izango da inkesta.

Inkestatzaileen ordutegiak eta tokiak hurrengoak izan-

go dira: maiatzak 4, Gure Zirkuan, 18:00etatik 20:00etara; maiatzak 8, Algortan, 19:00etatik 21:00etara; maiatzak 10, Areetan, 13:00etatik 15:00etara; maiatzak 15, Andra Mariko jaietan, 19:30etik 21:30era, eta maiatzak 22, Berbodromoan, 19:00etatik 21:00etara.

## LABURRAK

\* **Minbiziaren aurkako diru-bilketa.** Minbiziaren Aurkako Elkarteak Diru-biltzearen Eguna ospatuko du maiatzaren 8an, Getxoko gizartearen laguntza eskatzeko, minbizia duten pertsoneri eta haien senideei laguntza integrala eta doakoa ematen jarraitu ahal izateko. "Duela 70 urtetik hona, zure laguntza funtsezkoa da %70eko biziraupena lortzeko", adierazi dute elkartetik. Diru-bilketan Getxoko hogeit bat boluntariok eta 200 ikaslek hartuko dute parte, hainbat mahaitan banatuta, udalerriko hainbat lekutan. Minbizia munduko arazo soziosanitario garrantzitsuena da.

\* **Argiztapen urdina.** Datorren maiatzaren 11ko eta 12ko gauetan urdinez argizatuta izango dira Areetako kaia eta udalerriko igogailu publikoak. Horren arrazoia da hilaren 12an Fibromialgiaren eta neke kronikoaren sindromearen Munduko Eguna ospatzea.



Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

**STAFF** Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: [getxokoudalaprentsa@getxo.eus](mailto:getxokoudalaprentsa@getxo.eus) Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti S.L. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.

## “La boda de otros”, “Getxo Eszena Irekia” deialdian aukeratutako antzerki muntaia

Maiatzaren 2an, ostirala, Muxikebarrin *La boda de otros* antzezlan izango da ikusgai. *Getxo Eszena Irekia* deialdian hautatutako proposamenetako bat da, eta Udalak tokiko kulturaren garapena sustatu nahi du haren bitartez.

Lucía Astigarraga (obraren eszena-zuzendaria ere bada), Kepa Alesso, Leire Orbe, Josu Angulo eta David Caiña aktoreek antzeztuta, bi protagonisten arteko topaketa kontatzen du: Saioa eta Ander. Bi protagonistak lagun baten ezkontzan ikusiko dira berriro, nerabe-harremana eten eta hama-bi urtera.

20:00etan hasiko da eta sarreraren prezioa 15 eurokoa da.



## Musika eta testu literarioak “Hegoak” ikuskizunean

Garbiñe Insausti abeslariak, Iñaki Salvador pianistak eta Maider Zapirain biolontxelo-jotzaileak *Hegoak* euskarazko ikuskizuna taularatuko dute larunbatean, maiatzak 3, Muxikebarrin. 20:00etan hasiko da saioa eta sarreraren prezioa 10 eurokoa da.

Bidaia musikal eta emozionala da, eta Mikel Laboaren eta Imanolen doinu herrikoiekin hasten da, beste latitude batzuetara eramateko, Edith Piaf, Jaques Brel edo Kurt Weill bezalako artista handien abestien eskutik. Proposamen oso teatrala da, eta Pessoa, Galeano eta Lorca idazleen testu laburrak ere biltzen ditu.



## “Bira kolore” ikuskizun ibiltaria eta “H” zirku proposamena, Areetako Geltokia plazan

*Getxo Eszena Kalean* kaleko arte eszenikoen programak doako bi ikuskizun programatu ditu larunbat honetarako, maiatzak 3, Areetako Geltokia plazan.

18:30ean, Zurrunka Teatrok eta La Semilla Voladora taldeak *Bira kolore* ikuskizuna taularatuko dute. Basilio eta Valeriak osatutako bikote zahar baten bidez, landa eremutik datorren basoko bizitza ezagutzeko proposatzen digun ikuskizun ibiltaria da.



Bestalde, 19:30ean, La Córcoles konpainia katalanak *H* aurkeztuko du, kaleko zirku ikuskizun onena Zirkólrika sarietan eta 2024ko Fetan



kaleko ikuskizun onena. Pertsonaia-aren eta bizitza ematen dion bere funtsezko elementuaren, *balancier*-aren, arteko bals bat da.

## Bwatzabal Bandaren kontzertua

Bwatzabal Band rock taldea, Txomin Guzmán, Miguel Guzmán, Iñigo Gil eta Daniel Merinok osatua, maiatzaren 4an (igandea) izango da, 13:30ean, Muxikebarriko kanpoaldean, *Kristalezko Kioskoa* programazioaren barruan. Kontzertua ikusteko sarrera doakoa da.



## “Moko”, haur antzerkia euskaraz

*Moko* haurrentzako euskarazko antzezlan Muxikebarrira itzuli-ko da, enpatiari, errespetuari eta itxuretatik harago ikusteko gaitasunari buruzko bidaia poetiko bat egitera gonbidatzeko. Igandean, maiatzak 4, 18:00etatik aurrera, publikoak arte bihurtuta-

## “MAJAZZ” zikloa hastear Areetan

Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, bigarren urtez jarraian, MAJAZZ (MaiatzaJazz) kontzertu-zikloa izango da. Kantaldiak maiatzeko lau larunbatetan izango dira. 19:30ean hasiko dira eta sarreraren prezioa 5 eurokoa izango da.

Iñar Sastre pianistak emango dio hasiera zikloari hilaren 10ean. Ondoren, Ander Garcia kontrabaxu-jotzailea etorriko da *Jazz Basque Project* goiburu duen proposamenarekin (17an), Hilario Rodeiro Quinteto (24an), eta, amaitzeko, New duo: Iñaki Salvador & Chris Kase (31n).

MAJAZZ zikloa uztailean egingo den Getxo Jazzaren omenezko eta irekierako ekimena da. Bere helburua, jendeari jazzaren mundu liluragarrian murgiltzeko aukera eskaintzea da, giro hurbil eta abegikorrean.

## Jolasean euskaraz parkeetan

Urtero euskara udalerriko parkeetara eramaten duen *Parkean Olgetan* izeneko ekimena aurten maiatzaren 9, 16 eta 23an (ostiralak) izango da, Egizu elkarteak eta Udalak sustatutako Sendi proiektuaren barruko jardueren artean.

Ekimenaren helburua da txikiak taldean aritzeko dinamikan eta jolasean euskaraz parte hartzea, talde txikitik, hiru urtetik gorako umeek, beraiekin dauden pertsona nagusiek eta begiraleek osatutakoak, tratu hurbila errazte aldera.


Lehen saioa maiatzaren 9an izango da, Areetako Geltokia plazan, 17:00etatik aurrera; bigarren hitzordua, maiatzaren 16an, Malakate parkean, San Isidro jaien egitarauaren barruan, 17:30ean hasita, eta hirugarrena, maiatzaren 23an, Algortako San Nikolas plazan, 18:00etan.

Saioak doakoak izango dira eta parte hartu ahal izateko aurretiko izenematea egin beharko dute interesatuek hurrengo loturan: <https://labur.eus/7bra8np2>

## Zine-Klubeko Manu Gómez eta Oskar Fernández boluntarioak omenduko ditu Getxo Kulturak 40 urte baino gehiagoan egindako lanagatik

Maiatzaren 23an (ostirala) Getxo Kulturak Zine-Klubeko boluntario-taldea osatzen duten Manu Gómez eta Oskar Fernándezi omenaldia egingo die, 40 urte baino gehiagoz ekimen horretan egindako lanagatik. Ekitaldia 20:30ean izango da, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolako entzunaretoan, zikloaren 2024-25eko denboraldiko azken emanaldian. Saio horretan Peter Bogdanovich zinemagilearen *The Last Picture Show* ('Azken filma') film luzea proiektatuko da. Omenaldia dela eta, oraingoan saiorako sarrera gonbidapenez izango da, eta dagoeneko Muxikebarrin eta Romo Kultur Etxean eskura daude. Omenaldia saioa hasi aurretik egingo da eta, ondoren, ohi bezala, proiektzioa eta ohiko zine-foruma egingo dira.

Manu Gomez eta Oskar Fernándezek osatu dute zikloa dinamizatzeko taldea, eta 1982tik aurrera egon dira horri lotuta. Urte horretan Ingmar Bergmanen *Basa-marrubiak* filma proiektatu zutenetik, 2.000 saio inguru programatu eta koordinatu dituzte Algortako Kultur Etxean,



Oskar Fernández (ezkerrean) eta Manu Gómez (eskuinean)

Getxo Antzokian, Areetako Gran Cineman eta Andrés Isasi Musika Eskolako entzunaretoan, lehenengo Zine-Klubean soilik eta, ondoren, Cinema Paradiso zikloan ere; azken hori lehenengoari batu edo lotu zitzaion 2019an.

Lau hamarkadatan zehar, kalita-

tezo programazioa eskaintzearen aldeko apustua egin dute, joera komertzialetatik haratago, bikoiztutako nahiz jatorrizko bertsioko proiektzioak barne hartzen dituen. Zikloak, gainera, jatorri askotako filmak hartu ditu beti, sarritan jaialdi ospetsuetan sarrituak eta gaurkotasuneko gaiak jorratzen

dituztela, hausnarketarako aukera emateko helburuarekin. Hilaren 23an amaitzen den 40 urte baino gehiagoko jarduera horretan, zinemazaleen komunitatea sortu eta lan pedagogiko handia egin dute zine-forumaren bitartez. Hori dela eta, iaz Ondare Ukiezineko ataleko Aixé Getxo! saria jaso zuten.

### KIROLAK

## Begoña Beristain, Six Majorsak osatu duen lehen getxotarra

Begoña Beristain atleta eta kazetariak munduko sei maratoi garrantzitsuenak biltzen dituen World Abbot Majors zirkuitu ospetsua osatu berri du Estatu Batuetako Boston hirian. New Yorkek, Berlin, Londresek, Chicagok eta Tokiok osatzen dute 2006 urtean sortu zuten nazioarteko zirkuitu hori. Iaz, 17.679 atletek osatu zuten sei Majorsak; horietatik, 5.979 emakumezkoak izan ziren.



Six Majors zirkuituari amaiera emateko Boston aukeratu izana ez da kasualitatea izan. Izan ere, Bostonen, emakume batek, Katherine Switzerrek, dortsalarekin korritu ahal izan zuen lehen aldiz maratoi bat, eta ibilbidetik ateratzen saiatu ziren arren, 42 km eta 195 metroko lasterketaren amaierara iritsi zen. "Bostonen amaitzea oraindik beren herrialdeetan korrika egin ezin duten emakume guztiei elkartasuna adierazteko eta bidea ireki zigutenei omenaldia egiteko ekitaldia izan da", aitortu du Beristainek.

Bostongo maratonia zirkuitu osoko gogorrena da, ibilbide oso zorrotza duelako, txirrista jarraituekin. Helmugara iristean, Beristainek Six Majors Finisher domina eskuratu du, eta sari hori lortu duen Getxoko lehen emakumea eta Bizkaiko bigarrena izan da.

Gainera, 57 urterekin, joan den urtarrilean India hegoaldeko Anantapurko Ultramarat�oi Solidarioan parte hartu zuen lehen euskal emakume kirolaria izan zen, 170 km-ko proba.

## Bizkerre A eta B eta patin-hockeyko Jolaseta mailaz igo dira

Udalerriko hiru taldek, Bizkerre Futbol Taldeko lehenengo biek eta Jolaseta kirol elkartearen patin-hockeyko taldeak, mailaz igotzea lortu dute. Bizkerre A taldeari dagokionez, lehiaketa amaitzeko jardunaldi baten faltan, RFEFeko 2. mailara itzuliko dela ziurtatu du. Lehen taldea igotzeak Bizkerreko bigarren taldea RFEFeko 3. mailara itzultzea dakar, iaz lehenengoaren

arrasteagatik jaitsi baitzen.

Jolasetaren taldea, bestalde, OK Zilarrezko mailara itzuliko da, kirol horretako Estatuko bigarren mailara, igoera modu zuzenean lortu ondoren.

Arenas Clubek eta gizonezkoen Getxo Saski taldeak asteburu honetan lor dezakete mailaz igotzea.



## Hiru domina Maialen Narbona txirrindulariarentzat estatuko txapelketan

Punta Galea Tx.E.-ko txirrindulariak hiru domina -urrea, zilarra eta brontzea- lortu zituen Euskadiko selekzioarentzat joan den Aste Santuan Mallorcan jokaturako Espainiako kadete mailako Txapelketan, pistako modalitatean. Lehiaketa bikain baten ondoren, Maialenek urrea eskuratu zuen puntuazio-proban, zilarra erlojupeko kilometrokoan eta brontzea scratch modalitatean. Euskadik, guztira 16 dominarekin, bigarren amaitu zuen txapelketan, Valentziaren atzetik, 31 lortu baitzuten.